

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

NORTASUN-EREMUA

Azpi-Arloa: Jaiak

2025 urteko Sanrokeak XLVI. Kartel Lehiaketaren oinarriak

BDNS (Identif.): 838209.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/838209>).

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko ekainaren 6an erabakiaren laburpena.

Erabaki horren bidez, 2025 urteko Sanrokeak XLVI. Kartel Lehiaketaren oinarri arautzaileak onartzea.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>): eta Audio Udal honen web atarian (www.laudio.eus).

Erakunde esleitzaila: Audio Udal.

Onuradunak: Laudion erroldatutako 14 urtetik gorako edozein pertsonak parte hartu ahal izango du lehiaketa honetan.

Baldintzak eta aurkezteko modua: egile bakoitzak nahi beste kartela aurkeztu ahalko du (lelo desberdinekin), betiere, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak badira eta ez badute saririk jaso lehenago. Teknika libre izango da.

Ez da onartuko irudi edota mezu sexista, xenofobo, arrazistak eta antzekoak dauzkan kartelik.

Laudio Udalaren webgunean eskuragarri ipiniko den formularioa beteta aurkeztuko dira kartelak (www.laudio.eus). Nolanahi ere, elementu hauek eduki beharko ditu:

Aurkeztutako lanaren leloa.

Irudi fitxategia.

Lana aurkeztu duen pertsonaren identifikazio eta kontaktu datuak (datu horiek Audio Udaleko idazkari nagusiak baino ez ditu ezagutuko, eta ezin izango ditu jakitera eman lehiaketaren emaitza ebatzi arte).

Izen-abizenak.

NAN/AIZ.

Jaiotze de data.

Helbide elektronikoa.

Harremanetan jartzeko telefono zenbakia.

Markatzea oinarri hauetan zehazten diren betekizun guztiak betetzen direla adierazteko laukitxoak.

Kartelaren irudia daukan fitxategi batean aurkeztuko dira lanak, JPG formatuan (Neurriak: 820x1171 pixel. Bereizmena: 72 pixel hazbeteko. Gehieneko pisua: 2 MB). Ezin izango dira sinatu, eta ezin izango dute eduki aurkeztu duen pertsonaren identitatea ezagutzeko aukera ematen duen elementurik. Gainera, formatu fisikoan ere aurkeztu beharko dira, atzean leloa duen euskarri zurrun batean.

Irudian, kartela agertu beharko da 1000 mm x 700 mm formatuan (bertikalean).

Hauek dira kartelean nahitaez agertu behar diren testuak:

SANROKEAK 2025 - LAUDIO JAİETAN

ABUZTUAK 15, 16, 17, 27, 28, 29, 30 eta 31

Laudioko armarri ofiziala ere ipini beharko da, Audio Udalaren Nortasuna Arloan emango den eredua, zehazki. udal webgunean ere eskuragarri dago eredua: <https://www.laudio.eus/es/ayuntamiento/logotipos>.

Epea: Ekainaren 17a arte parte hartu ahalko da lehiaketan, egun hori barne.

Aurkeztutako obren jabetza: aurkeztu diren obrak udalaren jabetza izango dira, udalak egokitzat jotzen duen erabilera eman ahalko die eta nahi duen lekuan eta unean ipini ahalko ditu. Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du esanbidez onartzen direla zehaztutako baldintza guztiak eta bete egingo direla.

Lehiaketaren oinarriak ALHAO, ZUIN aldizkarian, udal webgunean eta Udalaren ohiko hedabideetan agertuko dira.

1.200,00 euroko sari bakarra emango da. Sariaren irabazleak beti bete beharko du sariaren atxikipenei buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoa.

Jakinarazteko modua: Irabazlearen nortasuna ZUIN aldizkarian, udal webgunean eta udalaren ohiko hedabideetan argitaratuko da, eta Audio Udalaren Nortasuna Arlotik dei egingo zaio saria jasotzera joan dadin.

Ebazpena: Audio Udalak izendatuko du epaimahai teknikoa, eta hau izango da osaera:

Lehendakaria. Epaimahai teknikoko lehendakaria izango da (berdinketa gertatuz gero, kalitateko botoarekin), Audioko Udaleko jailetako zinegotzi ordezkaria.

Bokala: bokal gisa jardungo dute, boto banarekin, artearen, pinturaren, diseinu grafikoaren edota argazkigintzaren munduarekin erlazionatutako bi audioar, Hizkuntza Normalizazio eta Identitate Zerbitzuko teknikaria, Berdintasun Zerbitzuko teknikaria eta Audioko 2 pertsona, Sanrokeak 2025 lantaldeko kideak talde berak izendatuak.

Idazkaritza: Nortasuna Arloko arduradunak idazkari lanak egingo ditu, hitza izanda, baina bozkatzeko aukera barik edo berak izendatutako zerbitzuko pertsona.

Kartel irabazlea aukeratzeko prozedura: aukeratzeko prozedurak bi fase izango ditu:

1. fasea: epaimahai teknikoak bigarren fasera pasako diren lanak aukeratzeko ditu.

2. fasea: "botoen" fasea izeneko honetan, gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:

Epaimahai teknikoaren botoak: 50 puntu eta 50 puntu herri-bozketarako.

Deialdi honen kariaz sor litezkeen auzi guztiak Audio Udaleko Nortasuna Arloaren eskumen eskusiboa dira.

Audio, 2025eko ekainaren 6a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTINEZ